

Zenbait irakaslek bilakaera iraunkorra aztertu dute liburu batean

2011/10/20

Argitalpena bi liburukitan dator, gaztelaniaz idatzita: **1. La evolución sostenible: una crisis multidimensional**, eta **2. La evolución sostenible: apuntes para una salida razonable**. Biak elkarlanean idatzi dituzte Txileko hiru irakaslerekin batera, Teodoro Kausel, Manfred Max-Neef eta Félix Fuders, Austral Unibertsitateko irakasleak.

Egileen iritziz, industria zibilizazioak hobetu egin du milioika gizakiren bizimodua eta eman die bizi maila bat pentsaezina industria aroa baino lehen. Aldi berean, hazi egin du gerra-suntsipenerako ahalmena, desberdintasunak eta gero eta presio handiagoa ekosistemak, baliabide natural eta biosferaren gainean oro har. Eraikin moderno-industrialak joan da erakusten, poliki-poliki, pitzadura oso sakonak bere zimentarrietan.

Gizateriak aurrekaririk gabeko arrisku eta erronkei egin behar die aurre, eta arrazoia ezaguna da: zibilizazio modernoaren oinarrian dauden bizimoduak ez dira iraunkorrak. Bestela esanda: funtsezko kontraesana biosferaren mugatasun eta gure metabolismo sozioekonomikoaren etengabeko hedatzearen artean.

Lan honek sintesi bat egin nahiko luke gaur egungo munduan eragiten duten arazo handienak, eta etorkizunean giltzarri izango direnak: energia, klima aldaketa, bioaniztasuna, desberdintasun sozioekonomikoak, jateko segurtasunik eza, hizkuntza eta kultura aniztasuna edo demografia.

Egileek ziprztindu nahi izan dute begirada globala Euskal Herriaren inguruko zenbait datu eta perspektibekin. Tonuari dagokionez, egileek ihes egin nahi izan dute katastrofismotik bezainbeste baikortasun *naivetik* (bereziki teknologikoa), eta zentratu dira datu jakinetan eta hausnarketa eraikitzailean.

